

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Galea Vitaek funtzionatzeko eta bere balio-proposamena modu egokian eskaintzeko, ezinbesteko jarduera batzuk burutu behar ditu. Jarduera hauek dira gure produktua garatzeko, mantentzeko eta bezeroei kalitatezko esperientzia eskaintzeko oinarria.

EKOIZPENA (produktuaren garapena eta mantentzea)

Galea Vitae plataforma digitala denez, ekoizpenaren funtsezko jarduerak ondokoak dira:

- Aplikazioaren eta webgunearen garapena eta eguneratzea.
- Osasun-, ongizate- eta entrenamendu-edukiak sortzea (planak, errutinak, gida bisualak).
- Adimen artifizialaren bidezko pertsonalizazio-sistemaren mantentzea.

ARAZOAK KONPONTZEA

Gure proiektua eraginkorra izan dadin, etengabe behar dugu:

- Bezeroen arazo teknikoei erantzutea (arazoak apparekin, datuarekin, kontuarekin...).
- Edukiak eguneratzea eta hobetzea bezeroen feedbackaren arabera.
- Sistemaren erroreak konpontzea eta hobekuntzak diseinatzea.

PLATAFORMA EDO SARE JARDUERAK

Plataforma digital batek jarduera tekniko eta operatibo egonkorak behar ditu:

- Datu-baseen kudeaketa eta erabiltzaileen fitxategien segurtasuna.
- Sistema eta zerbitzarien funtzionamendu jarraitua bermatzea.
- Komunitate digitala dinamizatzea (Discord/foro propioa).
- Erabiltzaileen esperientzia (UX) hobetzea eta monitorizatzea.

Galea Vitae-ren funtsezko jarduerak dira aplikazioa garatzea, eduki pertsonalizatuak sortzea, bezeroari laguntza ematea eta plataforma tekniko osoa mantentzea. Jarduera horiei esker, gure balio-proposamena modu eraginkorrean iristen da bezeroengana.



BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako materiala.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: <http://www.chatgpt.com>
- Irudia: <https://www.chatgpt.com>